

Internet euskaldunagoa

Josu Waliño

Informatikan lizentziatua

Aurtengo martxoan Internet pixka bat euskaldunago bihurtu zaigula esan dezakegu.

Edo behintzat euskal edukiz beteago dagoela.


Bi aurkezpen izan ziren hil horretan: batetik Eusko Jaurlaritzak bultzatako Euskararen Web-gunea, eta bestetik Euskaldunon Egunkariak on-line jarritako hemeroteca-zerbitzua.

Biak ere, garrantzitsuak.



EUSKO JAURLARITZAKO HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK kudeatzen duen Euskararen web-gunean (www.euskadi.net/euskara) euskararekin zuzeneko harremana duten informazio eta tresna ugari aurki daitezke. Beren esanetan

“etengabe berritu, osatu eta eguneratu beharreko web-gunea” da hau, web-gune bizia beraz. Lau hizkuntzatan kontsulta daitekeen web-gune honetan, testu-formatuko edukiez gain, euskararekin zuzeneko zerikusia duten aplikazio bereziak aurki daitezke. Esate baterako, EAEn izandako bilakaera soziolinguistikoa kontsulta daiteke datu-base batean, informazioa grafikoki ere jaso dezakegularik. EAEko toponimia-datutegia ere aurki daiteke bertan, baita euskararen alde era batera edo bestera lan egiten duten azpiegituren datu-basea ere. Liburu, bideo eta CD-ROMei buruzko informazioa ere badago bertan, eta euskara lantzeko hainbat tresna: lehendik gune horretan zegoen Elhuyar hiztegiak gain, 3000 hiztegia eta sinonimoen hiztegia ere aurki daitezke orain, baita EuskalTerm-erako lotura ere.




Egunkariaren hemeroteka

Euskaldunon Egunkariak on-line jarritako zerbitzua ere ez da makala. Beraien web-gunean jarritako bilatzailearen bidez (www.egunkaria.com/hemeroteka)



1999an argitaratutako artikulu guztietan agertzen den edozein hitzen arabera bilaketak egin ditzakegu. Bilaketak gehiago murrizteko aukera ere eskaintzen du, eta hilabete, sail eta baita orrialde-zenbakiaren arabera ere murriz ditzakegu bilaketak. Zerbitzu eraginkorra eta benetan azkarra da, emaitzak testu-formatuan emateaz gain maketa argitaratu zen bezala ikusteko aukera ere ematen digularik.


*“euskararen
web-gunean
euskararekin
zuzeneko
harremana duten
informazio eta
tresna ugari aurki
daitezke”.*

laz Eusko Jaurilaritzak euskal prentsa on-line jartzeko egindako ahaleginaren zuzeneko ondorioa izan da hau. Lehen pausoan Argia eta Egunkaria aurki ditzakegu on-line, eta laster batean gainerako euskal aldizkariak izango ditugu zuzenean Internet-en kontsultagai. 

Nabigatzaileen guda

Zein izan zen lehena, arrautza edo oiloa? Kasu honetan ez dago zalantzarik: lehena Netscape izan zen. 1996an kaleratutako nabigatzaile ezagunak merkatuaren nagusitasuna izan zuen Internet-en lehen hasiera haietan. Berehala Microsoft sartu zen jokoan bere Explorer famatuarekin eta egindako kanpaina erasotzailearen ondorioz merkatua erabat jan dio Netscape-ri pare bat urtean. Dena den, badirudi Netscape-k (ez ahaztu AOL handiak erosi duela konpainia hau) berriro ere jokoan sartu nahi duela eta oraintxe kaleratu du bere nabigatzailearen 6. bertsioa. Bertsio berria kaleratzeko hautatutako garaia ere ez da inolako kasualitatea izan: Microsoft-en aurkako auziaren epaia kaleratu zen egun berean zabaldu zen Netscape-ren 6. bertsio berria. Egia esan bazuen horretarako garaia, 1997az gero 4.x bertsioarekin baikeunden Microsoft-ek Explorer etengabe eguneratzen zuen bitartean.

Nabigatzaileen erabilera %tan.



Baina bitartean, ez al da bestelako lehiakiderik egon? Ba bai, baina xumeagoak. Badaude merkatuan beste hainbat nabigatzaile, bi erraldoiekin lehia egingo ez badite ere gutxienez buruko min-pixka bat sortzeko gai direnak. Nabigatzaile hauek askoz toki gutxiago hartzeaz gain memoria gutxiago behar izaten dute lan egiteko. Hau da oraintxe bere 4. bertsioa kaleratu duen Opera nabigatzailearen kasua. Nabigatzaile honek merkatuko estandarrek betetzen ditu (HTML 4.0, HTTP 4.0, XML, WML, JavaScript 1.3, SSL etab.) eta Windows eta Linux-erako bertsioak izateaz gain, laster baterako iragarri dute Macintosh-erako bertsioa.

Sagu optikoa

Microsoft-ek kaleratu berri duen sagu honek Intellieye teknologia erabiltzen du, hau da, ohikoa den saguaren gomazko bola erabili beharrean, sentso optikoa erabiltzen du. Sentso-re hau edozein gainazalera erabili daiteke, gainazala segundoko 1.500 aldiz arakatzen duelarik.

